

## Bizitza Berria



Arabako Lurralde Historikoan etxerik edo ostatu iraunkorrik gabe bizi diren edo ostatu prekario edo desegokia daukaten pertsonen gizarteratzea sustatzeko jaio zen Bizitza Berria elkartea. Helburu hori lortzeko, gizarte, osasun, hezkuntza, lan eta ostatu-arloko zerbitzuekin, zerbitzu judizialekin eta beste hainbat zerbitzu publikorekin koordinatzen du bere proiektua, etxerik gabekoen gizarteratzea eta laneratzea erraztu, eta horrela, bizitza duina izateko eskubidea gauzatu dezaten.

Elkarteko langileek pertsona babesgabeek eguneko hogeita lau orduetan eskaintzen diete arreta, hainbat arlotan: ohitura osasuntsuak edo eguneroko bizitzarako gaitasunak, bizikidetzarako eta gatazkak konpontzeko tresnen erabilera, edo aisialdi eta prestakuntza-arloko ekimenen programa zabala.